

2003 OROITIDAZKIA

AURKIBIDEA

Lehendakariaren agurra

Osaera

CSCE-EKGK-ren jarduera 2003ko ekitaldian

Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuaren Oroitidazkia

Aurrekontuari dagozkionak

Estatistika-eranskina

AGURRA

Berrikuntza enpresen lehiakortasunaren hirugarren osagaia (I+G+B) ez ezik, eremu instituzionalean dinamismo eta eraginkortasunerako funtsezko faktorea ere bada.

Alde horretatik, 2003ak bultzada eman dio Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren lanari: Zentro aktiboa izan da ideiak sortzen, kooperatibismoak eta kooperatibek Herri honen orainean eta etorkizunean izan beharreko eginkizunaz eztabaida aurreratu eta gidatzen.

Honela, Kontseilua publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaleku da, elkarrizketa, eztabaida eta adostasunerako topaleku.

Besteak beste, jarduera honek ematen dio bere zentzu instituzional propioa.

Bestalde, publikoaren eta pribatuaren arteko bat-egite honek, elkargune gisa, ematen dio balio erantsirik handiena bere eskuduntza edo aginpide funtzionalen garapenean; batez ere, ondorengo hauetan:

- Kooperatibak sustatzea eta horiek finkatzea, bere jardueraren eginkizun nagusitzat.
- Kooperatibismoaren inguruan prestakuntza-ekintzak garatzea, horiek zabaltzea eta horietaz informatzea.
- Kooperatibismoak gizartean duen eragina aztertzea eta ebaluatzea.
- Aholkularitza eta kontseilaritza-lanak gehitzea Administrazio Publikoan eta, oro har, gizartean.

Horren guztiaren berri zehatza ematen da hemen aurkezten den Txosten honetan.

Orain nik neuk eskerrak eman behar dizkiet hainbat arrazoirengatik kargua utzi duten kontseilariei: izan duten ardura edo dedikazioagatik, eguneroko lanean egin duten ekarpen handiagatik eta parte hartu duten egituren bidez Organoaren erabakietan asmatu dutelako.

Bukatzeko, berriro azpimarratu nahi nuke Kontseilua kooperatibismoaren eta euskal kooperatiben premien zerbitzura dagoen Erakundea dela, dagokion ikuspegi instituzionaletik betiere: hau da, bere eskuduntza eta ahalbideekin, etorkizuna duen euskal kooperatibismoa lortzea, azken batean.

OSAERA

2003ko ekitaldian ondorengo ordezkatzak izan dira:

- Esteban Saez de Sampedro jauna sartu da José Francisco Plazaola jaunaren ordezkari ordez.
- Koldo Arrese jauna, Jorge Arévalooren ordezkari ordez.
- Patxi Ormazabal jauna, Francisco Javier Sanz jaunaren ordezkari ordez.
- José M^a Aizega jauna, Jon Sarasua jaunaren ordezkari ordez.
- Imanol Igeregi jauna, Eduardo Fernández jaunaren ordezkari ordez.

Halaber, karguak aukeratu dira indarrean dauden arauen arabera:

- Lehendakaria..... Jesús Alfredo Ispizua jauna
- Lehendakariordea..... Patxi Ormazabal jauna

Beraz, hona hemen Kontseiluaren osaera ekitaldiaren amaieran:

Lehendakaria

Jesus Alfredo Ispizua Zuazua jn.t.a.

Lehendakariordea

Patxi Ormazabal Zamakona jna. (Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa)

Kontseilariak

Koldo Arrese Garcia jna.

Eusko Jaurlaritza (Unibertsitate, Hezkuntza eta Ikerketa Saila)

Esteban Saez de San Pedro Solabi jna.

Eusko Jaurlaritza (Nekazaritza eta Arrantza Saila)

Alejandro Martínez jna.

Deustuko Unibertsitatea

Baleren Bakaikoa Azurmendi jna.

Euskal Herriko Unibertsitatea

Jose M^a Aizega Zubillaga jna.

Mondragon Unibertsitatea

Alfredo Montoya Estibalez jna.

Nekazaritzako Kooperatiben Federazioa

Marta Areizaga Ezkurdia and.
Kontsumoko Kooperatiben Federazioa

Juan M. Larrañaga Zabala jna.
Kredituko Kooperatiben Federazioa

Imanol Igeregi Bilbao jna.
Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioa

Juan M^a Concha Aspiroz jna.
Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa

Daniel Esnal Espinasse jna.
Garraiolarien Kooperatiben Federazioa

Halaber, hona hemen ekitaldian zehar lanean jardun duten Batzordeen osaera. Honetaz esan behar da, Batzordeak Plan Estrategikoak ezarritako egitura berrira egokitzeak Zerbitzuen batzordea eta Azterlan eta Ikerketa batzordea kentzea ekarri duela.

Sustapena

Juan M^a Concha jna.
Jesús Alfredo Ispizua jna.
José M^a. Aizega jna.
Imanol Igeregi jna.
Daniel Esnal jna.
Marta Areizaga and.

Araudi Aplikazioa

Juan M. Larrañaga jna.
Alejandro Martínez jna.
Koldo Arrese jna.
Imanol Igeregi jna.
Juan M^a Concha jna.

Sozietateak Iraungitzeko Prozesuetan Esku Hartzeko batzordea (CIPES)

Patxi Ormazabal jna.
Baleren Bakaikoa jna.
Alfredo Montoya jna.
Esteban Saez de Sanpedro jna.
Imanol Igeregi jna.
Marta Areizaga and.
Fco. Javier Sanz jna. (*)
(*) Aditu gisa.

Kontseiluko langileak

2003ko ekitaldian ez da aldaketarik izan Kontseiluko langileen artean, eta beraz hona hemen Kontseiluaren osaera:

Juan Luis Arrieta jna. (Idazkari Orokor Teknikoa)

Santiago Merino jna. (Abokatu Aholkularia)

Ricardo Moreno jna. (Administraria)

CSCE-EKGGK-REN JARDUERA 2003KO EKITALDIAN

Kontseiluak dagozkion ekitaldietan garatu beharreko ekintzak Plan Estrategikoaren ildo estrategikoen garapenean zehazten dira, nahiz eta horiek guztiak ondorengo multzoetan sar genitzakeen, Kontseiluak betetzen dituen funtzioen izaera kontuan hartuta; alegia:

- **Administrazioarekiko lankidetz**a, kooperatibak kitatzeko eta eraldatzeko espedienteetan zertu beharreko administrazio-ekintzen bidez, aginduzko txostenak eginez eta Kooperatiba-Erregistroan egindako kontsultetan lagunduz.
- **Zerbitzu-ematea**, batez ere, gatazkak konpontzeko arloan Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuaren bidez, baita kooperatiba-izaerako printzipio, arau, ohitura eta usadioen interpretazio eta aplikazioaz Kontseiluari zuzenean egiten zaizkion kontsultei erantzunez ere.
- **Kooperatibismoa sustatzea**, bai zuzeneko jardunaren bidez eta bai Kooperatiba Mugimenduak eratutako estaldura-erakundeekin eta Kooperatiba Mugimenduko elkarteekin lankidetzaren bidez.

Lehenengo bi jarduera-multzoak (Administrazioarekiko lankidetz a eta Zerbitzu-ematea) **Araudien Aplikaziorako batzordearen** eta **Sozietateak Iraungitzeko Prozesuetan Esku Hartzeko batzordearen (CIPES)** bidez garatzen dira. Bestalde, **Sustapen Batzordea** Kooperatibismoa sustatu eta bultzatzeaz arduratzen da.

Ondoren, hona hemen CSCE-EKGGK-k 2003ko ekitaldian izandako jarduerak, horien ardura duten batzordeen arabera multzokatuta, jarduera orokorrak daudelarik horien aurretik.

Orokorrak

Batzorde Delegatuen kopurua, egitekoak eta osaera zehaztea

Indarrean dauden arauetan ezarritako berritzearen ondorioz kide berriak izendatu ondoren, Batzorde Delegatuen kopurua, egitekoak eta osaera zehazteari ekin zitzaion, aurreko atalean aurkeztu bezala geratu zirelarik eratuta. Hori guztia iazko ekitaldian onartu zen 2003/2005 Plan Estrategikoan ezarritako ildo nagusien arabera.

Kontseilari Ohien Foroaren bilerak:

2003ko ekitaldian bilera bakarra egin da, non hausnarketa egin den “gizarte-ekonomia” terminoaren kontzeptu-zehaztapenaz, baina gai honi buruz erabakitzen diren jokabide posibleen kudeaketara bideratua.

CSCE-EKGK-ri zuzenean egindako kontsultak

2003. urtean, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak bere Antolaketa eta Jarduera Araudia aldatu du. Ondorioz, aukera eman zaie elkarte kooperatiboei eta kooperatiben elkarteei, baita herri-administrazioei eta horietan egitekoak edo zerbitzuak dituzten profesionaleri beren kontsultak zuzenean Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluari egin ahal izateko, betiere kooperatiba-izaerako printzipio, arau, ohitura eta usadioen interpretazio eta aplikazioaz baldin badira.

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak juridikoki motibaturiko txosten bidez erantzungo du eskabidea jaso ondorengo 30 egunetan. Dena dela, ematen diren erantzunak informatzaileak baino ez dira izango, eta ez dute ez eskubiderik ez eskubide-itxaropenik sortuko ez eskatzaileen ez beste batzuen alde ere.

XX. Urteurrena ospatzeko jardunaldia

Gasteizko Villa Suso Jauregian izan zen 2003ko urriaren 17an eta bertan “ Enplegu Kooperatiboaren sustapena” gaia aztertu zen, 2003/2005 Plan Estrategikoan ezarritako zerbait. Jardunaldi horretan kooperatibak sustatzeko erakundeen (Elkar-Lan eta MCCren) ordezkariak parte hartu zuten, baita duela gutxi sustatutako kooperatibek ere; halaber, bertan hitz egin zuten Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburu Joseba Azkarraga jaunak eta Arabako Foru Aldundiko diputatu nagusi-orde Juan Antonio Zarate jaunak.

2002ko Urtekaria argitaratzea

2002ko ekitaldiari dagokion argitalpenean Arbitrajeko Euskal Zerbitzuak ekitaldi horretan emandako arbitraje-laudoak daude bilduta, baita Nekazaritzako Kooperatiben Federazioak “Landa Garapena Globalizazioaren esparruan” delako II Mundu Biltzarrean (Biasteri-2002ko urrian) aurkezturiko txostenaren laburpena ere.

SUSTAPEN BATZORDEA

Elkar-Lan, S. Coop. Kooperatibak Sustatzeko Elkarteari babes

Elkar-Lan, S. Coop. Kooperatibak Sustatzeko Elkartea bigarren mailako kooperatiba da, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak eta Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioak, 2002ko abenduaren 18an eratua, kooperatiba-enpresak sustatzeko helburuarekin.

Bere zeregina betetzeko, Elkar-Lan, S. Coop.ek ekintza ugari egiten ditu: kooperatibismoa zabaldu, negozio-ideiak antzeman eta ebaluatzea, enpresak sustatzeko ardura duten erakunde publikoekin lankidetzan, laguntza tekniko eta juridikoa eman, eta kooperatiba sortu ondoren babes-zerbitzua eskaini denboraldi batez.

Kontseiluak 2003ko ekitaldian ere Elkar-Lan, S. Coop. Sustapen Elkartearekin lankidetzan jarraitu du bere Kontseilu Errektorean parte hartuz, horrela bete ahal izateko Plan Estrategikoan ezarrita daukagun zeregina, hau da, kooperatiba berriak sustatzeko helburuan laguntzea.

2003ko ekitaldian balantzea oso positiboa izan da: guztira 27 kooperatiba eratu dira, horiei kooperatiba bihurtutako 3 enpresa erantsi behar zaizkie; beste 8 kooperatibak, Elkar-Lan-ek sustatu gabeak, baina eratu osteko aholkularitza eta babes-zerbitzua hitzartu dute.

OINARRI, S.G.R.ri laguntza

OINARRI, S.G.R. Elkarrekiko Berme Elkartea da, 1996ko urriaren 31n eratua eta Espainiako Bankuaren Erregistroan Finantza Erakunde gisa 1997ko otsailaren 17an inskribatua. Bere bazkide babesleen artean Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua dago.

Bere helburu soziala berme pertsonalak ematea da, abal bidez edota zuzenbidean onartutako beste edozein bidez, kausio-asegurua ez dena, bazkide partaideen alde, hauek egiten dituzten eragiketengatik.

Ondoren 2003ko ekitaldiaren bukaerako aldagairik esanguratsuenak laburtzen dira.

Aldagaia	2003 K.P.	Errealitate 2003	Estaldura KP-ri buruz	Gehikuntza 2002ri buruz
• Bazkide-kop. (alta garbiak 2003)	110	111	100,90	109,96
• Abal formalizatuak (milaka €)	27.040	26.992	99,80	125,77
• Abalak indarrean 03-12-31n (milaka €)	52.920	53.602	101,29	137,22

Halaber, hona hemen azken hiru urteotako beste zifra esanguratsu batzuen bilakaera:

Kontzeptua	2001	2002	2003
• Baliabide propio konputagarr (milaka €))	5.875	6.689	7.660
• Kaudimen-ratioa (*)	%24,95	%20,31	%16,87
• Kobraezinak %	%1	%0,67	%0,43
• Berandutza %	%0,09	%0,08	%0,16

(*) Espainiako Bankuak eskaturiko gutxienekoa %8.

CSCE-EKGGK-ri dagokionez, 2003ko ekitaldian, gure erakundeen artean indarrean dauden bi Hitzarmenen diru-fondoen erabilgarritasunak egokitu dira, hau da:

- Abalen estaldura eta
- Partaidetza sozialen harpidetza.

Eta babesaren ematen eta lankidetzan jarraitu dugu finantza-erakundearen Administrazio Kontseiluan parte hartuz.

Hitzarmenak erakunde laguntzaileekin kooperatiba-sustapeneko programak garatzeko:

Lankidetzaren Hitzarmenak egin dira erakunde laguntzaileekin (*) kooperatiba-sustapeneko programa hauen kofinantzetarako:

1. helburua: Kooperatiba-eredua ezagunagoa izan dadin lortzea, bai kooperatiben barruan eta bai gizartean oro har.

- **Elika Programa (M.U.) berritzea**

Heziketa sozio-etiko kooperatiborako materialen garapenean bigarren etapa bukatu delarik, eta bi urteko lan handiaren ondoren, ELIKA-k eduki kooperatibo berriak sortzen jarraitu du, zentzuetan oinarrituz.

(*) Hona hemen erakundearen identifikazioan erabilitako siglak:

- ENKF / FCAE (Euskadiko Nekazari Kooperatiben Federazioa)
- EIKF / FCEE (Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben Federazioa)
- EKKF / FECOE (Euskadiko Kontsumo Kooperatiben Federazioa)
- ELEKF / FCTAE (Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa)
- EGKF / FCTE (Euskadiko Garraiolaria Kooperatiben Federazioa)
- EKK / CCE (Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa)
- M.U. (Mondragon Unibertsitatea)
- U.D. (Deustuko Unibertsitatea)
- E.H.U. / U.P.V. (Euskal Herriko Unibertsitatea)

- **Sozietate-arloko prestakuntza-ekintzak (EIKF-FCEE)**

Arlo kooperatiboetan Prestatzeko Premien Diagnostikoak, 2001ean eginak, erakutsitako emaitzen aplikazioz, Euskadiko Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioak, kooperatiba federatuen prestakuntza-eskariari etengabe eta iraunkortasunez erantzun nahirik, Koaderno bat prestatu du kooperatibetako Kontseilu Errektoreen prestakuntzarako.

- **Heziketa sozioetikoaren abiatze-programa (M.U.)**

Proiektu honen helburu orokorra zera da: heziketa sozio-etiko kooperatiboa abian jartzea, prestakuntza kooperatiborako moduluak, zentzuen arabera, esperimendatuz hiru kooperatiba-eremutan: unibertsitatea, irakaskuntza ertaina (Arizmendi) eta enpresa-eremua.

- **Nekazaritza Kooperatiboa (FCAE-ENKF) (EIKF-FCEE)**

Aurreko ekitaldian hasitako programari jarraipena ematen dio, eta Irakaskuntzako eta Nekazaritzako Federazioen artean lankidetzan egina da. Esne-behien ustiategi batera bisita antolatuak egiten dituzte ikastetxeetako ikasleek, lehen irakaskuntzako azken mailetakako ikasleek nekazaritzako elikagaiei buruzko kooperatibismoa ezagut dezaten.

- **Kooperatibismoa ikastetxeetan sustatzeko kanpaina (FCTAE-ELEKF)**

Nork bere enpresa sortzeaz eta are gehiago kooperatiba-enpresa sortzeaz ikastetxeetan sumatu den prestakuntza-ezari aurre egitea da helburua.

Horretarako, Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioak kooperatibismoaren komunikazio-kanpaina antolatu du ikastetxeetan: Lanbide Hastapenetan, Lanbide Heziketan eta lan-orientabideak ematen eta lanean txertatzen diharduten erakunde publiko eta pribatuetan.

- **Kooperatiben Goi-mailako Kontabilitate Ikastaroa (EHU-UPV)**

Kooperatibetako zuzendari eta karguentzat izan da, gai honetan aditu diren unibertsitate-irakasleek emana.

2. helburua: Kooperatiba-eredua gizartean eta erakundeetan ezagunagoa izan dadin lortzea.

- **Hizkuntz Politiken Behatokia (M.U.)**

Programa honen helburua behatoki bat sortzea da, euskal kooperatibetan hizkuntz politikak abian jartzeak sortzen dituen premia eta arazoen jarraipena egiteko, euskara-planei dagokienean, batez ere.

- **Balantze Sozial-tipo bat egitea (DEUSTU)**

Deustuko Unibertsitateko Ikasketa Kooperatiben Institutuak Balantze Sozialari buruz egin eta 2001eko Urtekarian argitara emandako azterketetatik abiatuz, baita MCC inguruan egindako lanetatik ere, eredurik aurreratuenen adierazleak biltzen dituen dokumentua prestatu da, kooperatiba jakin batzuetan balizko aplikazioa egin ahal izateko.

- **Erantzukizun Sozialeko balantzeak irakaskuntzako kooperatibetan (EIKF-FCEE)**

Erantzukizun Sozialeko balantzeak kooperatibaren irudi soziala zabaltzen du dagokion komunitatean. Kooperatibaren gizarte-eragina bi noranzkotan neurtu behar da, berorretaz zentzuzko iritzia eduki ahal izateko.

EIKF-FCEE-tik ekimena bultzatu da irakaskuntzako kooperatibek beren urteko txostenetan behingoz aplikatu eta erabil dezaten Erantzukizun Sozialeko balantzeak egiteko sistematika.

- **Bazkideen gogobetetze-maila neurtzeko esperientzia (ELEKF-FCTAE)**

Interesa duten Kooperatibek ezagut dezaten zein den giza baliabideen gogobetetze-maila, bazkide langileen gogobetetze-maila neurtzeko Esperientzia gauzatu da, gogobetetze-maila hori dozena bat faktoreren inguruan neurtzen delarik.

- **Erantzukizun Sozial kooperatiboko politika egiteko oinarriak garatzea (MU)**

Ikerketaren esparru orokorra bi lan-ildok osatzen dute, bi urteko epean gauzatuko delarik. Honako hauek dira:

- Konpromiso sozial kooperatiboa: Arrasateko Esperientzia Kooperatiboan kanpoko erantzukizun sozialaren identitate-seinale edo bereizgarrien azterketa historikoa eta zehaztapena.
- Konpromiso sozial kooperatiboa: kooperatiben kanpoko erantzukizun soziala erronka sozial eta etiko berrien aurrean.

3. helburua: Kooperatiba gehiago sortu eta lehendik daudenak sendotzea.

- **CUMA azterketa (ENKF-FCAE)**

Egin den azterketak ondorioztatu du egingarria dela Nekazaritzako Makinak Erabiltzeko Kooperatiba (CUMA), bigarren mailakoa, Araban dauden nekazaritzako makinak optimizatzeko eta, gero, lurralde horretan dauden CUMA-en bat-egitea ahalbidetzeko.

- **Telekomunikazioen optimizaziorako diagnostikoa (ENKF-FCAE)**

Nekazaritzako kooperatiba nagusietan telefoniaren kontsumo-diagnostikoa egin da, kontsumo horren alderik garrantzitsuenak aztertu direlarik.

- **Erosketa-zentrala (EGKF-FCTE)**

BCC Central de Compras, S. Coop. erakundearentzat laguntza ekonomikoa izan da; Euskadiko Garraiolarien Kooperatiba Federazioak sortu zuen, eta helburu nagusia sektorean talde indartsu bat sortzea da, erosketa-ahalmen handiarekin eta lehentasunezko baldintzetan, kostuen plangintza eta kontrola hobetu ahal izateko.

- **Ezarpen farmazeutikoa (ENKF-FCAE)**

Hornidura-kooperatibetan bermatzaile izango den zerbitzu farmazeutikoa ezartzen lagundu da, ondorengo alderdiak kontuan izanda:

- Animaliei botikak emateko indarrean dagoen araudia betetzea.
- Elikaduraren segurtasun eta kalitateari laguntzea.
- Kooperatiba-talde bat sendotzea.

- **Mundukide (M.U.)**

“Herri Ekonomietako Kooperatibekiko trukea, ikerketa eta laguntza teknikoa” izenburuko proiektuan lagundu da, Mondragón Unibertsitateak eragina.

Proiektuaren helburua herri-ekonomiei atxikitako kooperatiben eta erakundeen indartze sozio-ekonomikoan laguntzea da, eta hori prestakuntza eta laguntza teorikoaren bidez, betiere tokian tokiko errealitateari egokituta eta garapen endogenoko prozesuekin begirunetsuak izanik.

Proiektu hau Arrasateko kooperatiba-mugimenduko zenbait eragileren eta Hegoaldeko herrialdeetako erakunde komunitarioen artean abian jarritako lankidetzaren barruan kokatzen da.

- **Hezkuntzakoak ez diren Araudien Bilduma (EIKF-FCEE)**

Zenbait eremutan (ez hezkuntzakoetan) —zergak, prebentzioa, segurtasuna, etab.— irakaskuntzako kooperatibei dagozkien araudien bilduma egin da, irakaskuntzako kooperatiba horien enpresa-kudeaketan lagungarri izango den informazioa eskura edukitzeko.

- **KOOPERATIBA aldizkaria (EKKF-FECO)**

Euskadiko Kontsumoko Kooperatiben Federazioarekin lan egin da KOOPERATIBA aldizkariaren lau zenbakien argitalpenak 2003ko ekitaldian sortu dituen gastuak estaltzeko.

- **Web orria (EKKF-FECO)**

Euskadiko Kontsumoko Kooperatiben Federazioaren web orria martxan jartzen lagundu da, non agertzen diren Euskadiko merkataritza-banaketaren kooperatiba-sektoreko daturik esanguratsuenak, baita orain arteko bilakaeraren azalpen historiko laburra ere. Horrek guztiak eskatzen du euskal kooperatiba-mugimendua gizarte osoari ezagutaraztea, eta hori garrantzitsutzat jotzen da gai honetan Interneten informazio gutxi baitago gaur egun.

- **Ordezkapenatarako Kooperatibari buruzko azterketa (ENKF-FCAE)**

Kooperatiba eta nekazariarentzat Zerbitzu Kooperatiba eratzeko azterlan bat egin da. Kooperatiba horrek ondorengo zerbitzuak emango ditu:

- Ordezkapenatarako zerbitzua, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiek baja, opor, prestakuntza-ikastaro eta abarreatatik behar dutenerako.

- Ordezkapen-zerbitzua nekazaritzako kooperatibetan.
- Zerbitzu teknikoak kooperatibek edo nekazariak eta abeltzainek eskatutako arloetan.

- **Ingurumeneko aurrediagnostikoak (ELEKF-FCTAE)**

Ingurumen-egoerari buruzko 5 txosten egin dira guztira, beste horrenbeste kooperatibatan.

- **Kooperatiben sustapena aholkularitza- eta kontsulta-enpresetan (ELEKF-FCTAE)**

Kanpaina honetan ondorengo materiala bidali da EAEko aholkularitza- eta kontsulta-enpresetara:

- Elkar-Lan-en eraketa eta bere zerbitzua.
- Lan elkartuko sektorearentzat interes orokorrekoak diren zenbait zirkular.
- KOOP aldizkaria.

- **Kooperatibismoa sustatzea komunikabideetan (ELEKF-FCTAE)**

2003ko ekitaldiko kanpaina honetan, batez ere iragarkiak sartu dira Radio Euskadi eta Euskadi Irratian.

Halaber, zenbait material banatu da kooperatiba-zabalkunderako, eta kooperatiba-sustapenari buruzko liburu bat ere aurkeztu da.

- **Kudeaketa, informazio eta komunikaziorako tresna berriak (ENKF/FCAE)**

23 kooperatibatako arduradunei teknologia berriez baliatzeko aukera eman zaie.

- **Informazio Buletina (EIKF-FCEE)**

Euskadiko Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioak argitaratua, Federazioak zertzen dituen ekintzei buruz informazioa ematen du eta Irakaskuntzako Kooperatibetako bazkideei eta hezkuntza-arloko beste erakundeei zuzendua dago.

- **INTRANET berriro diseinatzea (EIKF-FCEE)**

Euskadiko Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioaren web orria berriro diseinatzen lagundu da, barne-konexioko tresna izan dadin kooperatiba federatuei harreman-mekanismo bizkor eta arina emanez.

- **Bikaintasun-ziurtagiria Irakaskuntzako Kooperatibetan (EIKF-FCEE)**

Irakaskuntzako kooperatibetan Bikaintasun Kooperatiboko Ziurtagiria ezartzeko aukera aztertzen lagundu da, eta hori sozietate, lege, ekonomia, kudeaketa eta antzeko zenbait adierazletan oinarritua, irakaskuntzako kooperatibak etengabeko hobekuntza-prozesura bultzatuz, aldi berean irakaskuntzako kooperatibismoak bikaintasunaren alde egiten duen apustua gizarteari helaraziz.

- **Famili Zuzenbideak Irakaskuntzako Kooperatibetan dituen ondorioen azterketa (EIKF-FCEE)**

Hitzaldi-solasaldi bat egin zen urrian eta bertan irakaskuntzako kooperatibetako 50 ordezkari baino gehiago izan ziren, gai honek sektoreko kooperatibetan sortzen duen interesaren adierazgarri.

- **Bidaia teknikoa (ENKF/FCAE)**

Bidaia tekniko bat finantzatzen lagundu da; urtero Nekazaritzako Kooperatiben Federazioak antolatzen du, eta bertan Europako Nekazaritza Kooperatibak bisitatzen dira ondorengo helburuekin:

- Europako esperientzia kooperatibo berritzaile eta arrakastatsuek ezagutzea.
- Bisitaturiko herrialde bakoitzean, ordezkariak handieneko kooperatiba-erakundeak ezagutzea.
- Bizikidetzeta eta elkar ezagutzeko giroa sortzea euskal kooperatiben arduradun kualifikatuen artean, ondorio positiboak izan ditzan bai Federazioan bertan eta bai kooperatiben arteko lankidetzeta-ekintza posibleetan.

- **Kostuen kontrola hobetzeko programa (ELEKF-FCTAE)**

Guztira banakako bederatzi txosten egin dira, non kooperatiba-enpresa txikian kostuen plangintza eta kontrola egiteko sistema hobetzeko programari ekin baitzaio, eta hori guztia aurrez ezarritako helburuen arabera.

- **Kostuen plangintza eta kontrolerako tresnak (EIKF-FCEE)**

Kostuen plangintza eta kontrola tresna ordezkazina da irakaskuntzako kooperatibaren kudeaketa eraginkorrerako.

2003ko ekitaldian Datu Ekonomikoen Behatoki baten diseinuan lan egin da irakaskuntzako kooperatiban kostuen plangintza eta kontrol-sistema hobetzeko, oinarritzko eta beharrezko informazioa eskura izateko erabakiak hartzerakoan lagungarri izateko, eta bere egoeraren berri emateko irakaskuntza kooperatiboko ikastetxe guztien testuinguruan.

- **Parte-hartze integralerako azterketa eta diagnostikoa (M.U.)**

Ikerketa-proiektu honen helburu orokorrak bi ildo ditu:

1. Parte-hartze integralaren kontzeptua sortu eta sakontzea eta bere bi aldeek elkarrekin nola erlazionatzen eta jokatzen duten aztertzea: parte-hartze instituzional edo politikoa eta parte-hartzea lanpostuan.
2. Parte-hartze kooperatiboaren bi aldeen arteko erlazioa aztertu ondoren, proposamen zehatzak egitea parte-hartze politikoa sendotzeko, lanpostuan parte-hartzeak horretarako eskaintzen dituen aukera eta ahalbideetatik abiatuz.

SOZIJETATEAK IRAUNGITZEKO PROZESUETAN ESKU-HARTZEKO BATZORDEA (CIPES)

- Guztira 15 likidazio-espeditente bideratu dira eta sozietateak eraldatzeko 3 espeditente.

ARAUDIEN APLIKAZIORAKO BATZORDEA

- Guztira 9 kontsultari erantzun zaie.
- Aginduzko txosten hauek egin dira:
 - Agindua, Gizarte Ekonomian murgiltzeko laguntzak antolatzen dituen.
 - Agindua, EAEko Gizarte Ekonomiako enpresen elkartze-egiturak sortu eta finkatzera bideratutako laguntzak ezartzen dituen.
 - Agindua, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, Gizarte Ekonomian enpresa-lankidetzarako laguntzak ezartzen dituen.
 - Agindua, Gizarte Ekonomian prestatzeko laguntzak ezartzen dituen.
 - Agindua, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomiako enpresetan asistentzia teknikorako laguntzak ezartzen dituen.
 - Agindua, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, Gizarte Ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak arautzen dituen.
 - Agindua, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, langileek enpresetan parte hartzeko laguntzak antolatzen dituen.

- Agindua, salgaien errepideko garraio publikoaren arloan enpresa-kontzentrazioarako laguntza-programa bat ezartzen duena.
- Agindua, salgaien errepideko garraio publikoaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntzak emateko deialdia egiten duena.
- Agindua, salgaien eta bidaiarien garraio publikoaren arloan lanbidea uzteko laguntza-programa bat ezartzen duena.
- Agindua, salgaien errepideko garraio publikoaren arloan ibilgailu-flota berritzeko laguntza-programa bat ezartzen duena.
- Erakundeen arteko Enplegu Plana 2003-2006 eta Laneko Gizarte Segurantzza eta Lan Osasuneko Plan Zuzentzailea 2003-2006.
- Agindua, Euskal Lan Zerbitzua izendapenez, lan-agentziaren eginkizunetan Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak sustatzen dituen lan-merkatuko bitartekotza-ekintzen antolamendua eta garapena arautzen dituena.
- Dekretua, lanerako laguntzak arautzen dituena.
- Dekretua, Kultura Ekintzailea eta Enpresa Sortzeko aukera babesten duena.
- Dekretua, Lan-aukerak areagotzeko eta Laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituena..

KOOPERATIBEN ARBITRAJEKO EUSKAL ZERBITZUAREN OROITIDAZKIA

Aurkezpena:

Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuaren asmoa ez da gatazka askotan adiskidetze eta arbitraje-lana egitea, baizik eta kooperatiben artean edo hauen eta beren bazkideen artean sortutako auziak bide hauek erabiliz konpontzea, ohiko justizi epaitegien alternatiba gisa, gatazka bizkorrago konpon dadin, kostua txikiagoa izan dadin aldeentzat, eta ahal bada, ekitatea erabiliz konponbide bidezkoagoak lor daitezen legearen aplikazio huts-hutsak ematen dituenak baino.

Uste dugu betetzen ari garela planteaturiko helburuak, epaileek egindako lanari esker, ondoren zerrendatuko diren gaiak aztertu dituztelarik. Gogoratu behar da gaurkotu egin dela KAEZ-SVAC-en epaile-zerrenda, honela osatuz epaile operatiboen kopurua.

Gainera, kooperatibetan gatazkak konpontzeko erabilitako bideak aztertzen dituen txosten bat ere lantzen ari gara, bitartekaritzaren aukera ere aztertu delarik alderdiak ados jartzeko.

Azkenik, aipatu behar da Arbitraje Lege berriak (60/2003 Legea, abenduaren 23koa) sartutako berrikuntzak ere aztertzen ari garela, kooperatiben arbitrajeko gure Araudia egokitzeko.

KAEZ-SVAC 2003 ESPEDIENTEEN DESKARGUA

ARBITRAJEAK: 16

<u>ZENBAKIA</u>	<u>SEKTOREA</u>	<u>MOTA</u>
1-2003	ETXEBIZITZAK	ERABAKI INPUGN
2-2003	GARRAIOA	BAZKIDE ZIGORTZ
3-2003	NEKAZARITZA	EKARPEN ITZULTZ
4-2003	KONTSUMOA	EKARPEN ITZULTZ
5-2003	LAN ELKARTUA	KALTE-ORDAINA
6-2003	LAN ELKARTUA	ERABAKI INPUGN
7-2003	LAN ELKARTUA	KOPURU ERREKLAM
8-2003	LAN ELKARTUA	KOPURU ERREKLAM
9-2003	ETXEBIZITZAK	BAZKIDE GATAZKA
10-2003	ETXEBIZITZAK	BAZKIDE GATAZKA
11-2003	LAN ELKARTUA	EKARPEN ITZULTZ
12-2003	LAN ELKARTUA	BAZKIDE ZIGORTZ
13-2003	ETXEBIZITZAK	ETXEBIZIT PREZIOA
14-2003	NEKAZARITZA	EKARPEN ITZULTZ
15-2003	NEKAZARITZA	ERABAKI INPUGN
16-2003	LAN ELKARTUA	EKARPEN ITZULTZ

KAEZ-SVAC 2003 ESPEDIENTE DESKARGUA

ADISKIDETZEAK

<u>ZENBAKIA</u>	<u>SEKTOREA</u>	<u>MOTA</u>
1-2003	LAN ELKARTUA	LEGE ERABAKIAK
2-2003	LAN ELKARTUA	EKARPEN ITZULTZ
3-2003	GARRAIOA	KALTE-ORDAINA
4-2003	LAN ELKARTUA	EKARPEN ITZULTZ
5-2003	LAN ELKARTUA	BAZKIDE ZIGORTZ
6-2003	LAN ELKARTUA	EKARPEN ITZULTZ
7-2003	LAN ELKARTUA	EKARPEN ITZULTZ
8-2003	LAN ELKARTUA	EKARPEN ITZULTZ

AURREKONTUARI DAGOZKIONAK

Ondoren 2003ko ekitaldiari dagozkion ekonomi eta finantza-datuen laburpena aurkeztuko da, baita 2002ko ekitaldiko datuekin egindako alderaketa ere, eurotan.

Esan behar da 2003ko ekitaldiari dagozkion datu errealen euskarri diren egoera-orriak Zubizarreta Consulting, S.L. enpresak ikuskatu dituela eta, bere iritziz, zuzen adierazten dutela Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak 2003ko abenduaren 31n zuen finantza-eta ondare-egoera.

EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUAren urteko kontuak ikuskatu ditugu: berauetan 2003ko abenduaren 31n zuen egoera-balantzea, eta data berean itxitako ekitaldiko galdu-irabazien kontua eta oroitidazkia sartzen dira, horien formulazioa Erakundeko Idazkari Orokor Teknikoaren ardura delarik. Gure ardura urteko kontu horiei buruz, orokorrean, iritzia ematea da, egin dugun lanean oinarrituta. Lan hau, orokorki onarturik dauden ikuskaritza-arauen arabera egin dugu, eta hauek, hautazko probak eginez, urteko kontuen egiaztagirien azterketa eta berorien aurkezpena, erabilitako kontabilitate-printzipioak eta egindako kalkuluak balioestea eskatzen dute.

Merkataritza-legeriaren arabera, konparazioak egin ahal izateko, balantzeko, galdu-irabazien kontuko eta finantzaketa-koadroko partida bakoitzarekin, 2003ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko zifren ondoan, aurreko ekitaldikoak ere aurkeztu ditu Idazkari Orokor Teknikoak. Gure iritzia 2001eko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko kontuei buruzkoa da bakarrik. 200eko apirilaren 8an beren ikuskaritza-txostena eman zuten beste ikuskatzaile batzuek 2002ko ekitaldiko kontuei buruz, eta aldeko iritzia azaldu zuten orduan.

Gure iritziz, 2003ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko kontuek, beren alderdi garrantzitsu guztietan, **EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA**k 2003ko abenduaren 31n zuen ondarea eta finantza-egoera zuzen adierazten dituzte, baita egindako eragiketen emaitzak eta data berean itxitako ekitaldian lortu eta erabilitako baliabideak ere; gainera, behar hainbat informazio dute egoki interpretatu eta ulertzeko, orokorki onarturik dauden kontabilitate-printzipio eta arauen arabera betiere.

BALANTZE LABURTUA 2003KO ABENDUAREN 31N

Hona hemen Balantze laburtua, 2003ko ekitaldia itxi eta kontuak ikuskatu ondoren, eta 2002koarekin alderaketa, datu guztiak eurotan.

EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA

CIF: Q-5150003-A

Egoera Balantzeak, 2003ko eta 2002ko abenduaren 31koak (Euroak)

AKTIBOA	03.12.3 1	02.12.31	PASIBOA	03.12.31	02.12.31
B) IBILGETUA	3.961.847	4.855.622	A) FONDO PROPIOAK	307.545	161.715
II. <u>Ibilgetze inmaterialak</u>	333.730	341.282	I. <u>Erreserbak</u>	161.715	75.224
1. Emakida, patente, lizentzia, marka eta antzekoak	16.657	12.631	II. <u>Galdu-irabaziak</u>	145.830	86.491
2. Akura lagapen eskubideak	391.708	391.708			
3. Informatika-aplikazioak	586	476	B) HAINBAT EKITALD. BANATZEKO SARRERAK	457.317	386.215
4. Amortizazioak	-75.221	-63.533	I. <u>Kapital-subentzioak</u>	129.279	49.168
III. <u>Ibilgetze materialak</u>	162.000	44.933	II. <u>Hainbat ekitalditan banatzeko bestelako sarrerak</u>	328.038	337.047
1. Instalazioak, altzariak	422.107	292.188			
2. Bestelako ibilgetua	144.910	141.854	C) GASTUETARAKO HORNID (FAEC) (2 OHARRA)	2.403.390	2.927.275
3. Amortizazioak	-405.017	-389.109			
IV. <u>Finantza Ibilgetzeak (1 OHAR)</u>	3.466.117	4.469.407	D) EPE LUZERAKO HARTZEK (3. OHAR)	1.910.489	2.196.189
1. Finantza-partaidetzak	357.676	316.081	I. <u>Bestelako hartzekodunak</u>	1.910.489	2.196.189
2. Bestelako kredituak	3.405.475	4.392.360			
3. Fidantzak	541	541	E) EPE LABUR HARTZEKOD. (3. OHAR)	681.131	797.188
4. Hornidurak	-297.575	-239.575	IV. <u>Merkataritza hartzekodunak</u>	678.425	783.677
D) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	1.798.025	1.612.960	2. <u>Erosketa edo zerbitzu-prestazioengatik zorrak</u>	678.425	783.677
I. <u>Zordunak</u>	583.083	263.540	V. <u>Merkataritzakoak ez diren bestelako</u>	2.706	13.511
4. Bestelako zordunak	583.083	263.540			
II. <u>Bestelako kredituak</u>	5.962	9.118			

III. Diruzaintza	1.206.448	1.337.163	zorrak		
IV. Aldizkapenagatiko doikuntzak	2.532	3.139	1. Administrazio Publikoak	2.547	13.352
			4. Ordaintzeko dauden ordainsariak	159	159
ZENBATEKOA GUZTIRA	5.759.872	6.468.582	ZENBATEKOA GUZTIRA	5.759.872	6.468.582

1 OHARRA: Kooperatiba eraldatuei emandako kreditu eta partaidetzako kontu-saldoei dagokie, baita OINARRI, S.G.R.ko partaidetzari ere.

2 OHARRA: F.A.E.C.—Kooperatiben Iraungipeneko Aplikazio Fondoak 2003ko ekitaldian, baita aurreko ekitaldietan ere, Kontseiluaren esku utzitako kopuruen saldo aplikatu gabea jasotzen du, eta hori kitaturiko edo/eta eraldatutako kooperatiben ondorioz.

3. OHARRA: Elkarreei ordaintzeko dauden zenbatekoei dagokie, kooperatiben kitatze- eta eraldatze-prozesuetan izandako diru-sarrereren ondorioz.

2003ko EKITALDIKO GALDU-IRABAZIAK

Hona hemen Balantze laburtua 2003ko galdu-irabazien kontua, 2002koarekin alderaketa, datu guztiak eurotan.

EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA CIF: Q-5150003-A

2003ko abenduaren 31ko Galdu-Irabazien Kontua (Eurotan)

ZOR	03.12.31	03.12.31	HARTZEKO	03.12.31	03.12.31
GASTUAK			SARRERAK		
. Egindako transferentziak	327.779	337.269	. Ustiapen-sarrerak	1.008.005	1.970.082
. Pertsonalaren gastuak	133.579	136.124	Hartutako transferentziak	724.519	697.617
) Soldatak, ordainsariak eta asimilatuak	109.500	109.791	Bestelako sarrerak (1. OHARRA)	283.486	1.272.465
) Zama sozialak	24.079	26.333			
. Ibilgetuaren amortizazio zuzkidurak	27.597	23.293			
. Kanpo-zerbitzuak	274.928	178.386			
. F.A.E.C. zuzkidura	248.665	1.238.714			
USTIAPENENKO MOZK	0	56.296	USTIAPENENKO GALERAK	4.543	0
Finantza-gastuak	25	48	Finantza-sarrerak	16.381	18.714
FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK	16.356	18.666	FINANTZA EMAITZA NEGATIBAK		

JARDUERA ARRUNT.MOZKINAK	11.813	74.962	JARDUERA ARRUNT. GALERAK		
2. Ezohiko gastuak	599	-5.409	. Ekit.emait.intsuld.transf. eta kapital- subentzioak	9.009	9.111
3. Beste ekitaldietako gastu eta galerak	18.037	7.416	. Ezohiko sarrerak	1.661	1.419
			. Beste ekitaldietako sarrerak eta mozkina	24.529	3.006
EZOHICO EMAITZA POSITIBOAK	16.563	11.529	EZOHICO EMAITZA NEGATIBOAK		
ZERGEN AURRETIKO MOZKINAK	28.376	86.491	ZERGEN AURRET. GALERAK		
EKITALDI EMAITZA MOZKINAK)	28.376	86.491	EKITALDIKO EMAITZ. (GALERAK)		

1. **OHARRA:** Hemen, batez ere, Kooperatiben Iraungipeneko Aplikazio Fondoko zuzkidurak eta sarrerak daude, kooperatiben kitatze edo/eta eraldaketaren izeneko sarreretatik datozenak.

2003KO EKITALDIKO AURREKONTU-EGOERA

Hona hemen 2003ko ekitaldirako ezarritako aurrekontua eta benetan lortutako zifrak, eurotan.

Kontzeptua	Aurreiku sia 2003	Erreala 03/12/31	Desbider apena %
OHIKO SARRERAK	724.000	749.821	103,57%
Aurrekontuko diru-hornidura	715.000	715.000	100,00%
Ohiko bestelako sarrerak	9.000	34.821	386,90%
SARRERA BEREZIAK	830.000	836.462	100,78%
Desegiteak eta eraldaketak	830.000	820.081	98,80%
Finantza Sarrerak	0	16.381	
FAEC-EN KARGURAKO HORNIDURA	64.839	0	0,00%
SARRERAK GUZTIRA	1.618.839	1.586.283	97,99%
GASTUAK			
PERTSONAL-GASTUAK	137.600	133.579	97,08%
FUNTZIONAMENDU-GASTUAK	120.100	96.814	80,61%
Bidaiak, egonaldiak, leku-aldatzeak	7.651	3.307	43,22%
Kuotak eta harpidetzak	4.200	4.168	99,24%

Bilerak, biltzarrak eta ikastaroak	61.000	53.089	87,03%
Azpikontatazioa	5.625	6.493	115,43%
Bestelako funtzionamendu-gastuak	41.624	29.757	71,49%
FAEC-CIPES GASTUAK	15.000	14.107	94,05%
BIRJARPENeko INBERTSIOAK	12.020	41.524	345,46%
IZAERA OROKORREKO JARDUERA GASTUAK	25.000	26.547	106,19%
BATZORDEEN JARDUERA GASTUAK	595.400	584.628	98,19%
Sustapen eta Komunikazioa	595.400	584.628	98,19%
HITZARMENAK FAEC ERAKUNDEEKIN	407.500	410.041	100,62%
ELKARTZE-EGITUREN KOFINANTZAKETA	306.219	306.219	100,00%
GASTUAK GUZTIRA	1.618.839	1.613.459	99,67%

ESTATISTIKA-ERANSKINA

Gizarte Ekonomiako Kontua

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailak “Gizarte Ekonomiako Kontuak” egin ditu 2001-2002 urteetarako, Gizarte Ekonomiak EAeko ekonomian duen neurria eta tamaina jakiteko, aurreko biurtekoarekiko izan duen bilakaera erakutsiz.

Laburpen gisa, esan daiteke Gizarte Ekonomia osatzen duten enpresek, 2001-2002 biurtekoan, aurreko aldietan adina lanpostu sortu dutela, Gizarte Ekonomiaren pisu erlatiboa hazi egin delarik EAeko ekonomiaren barruan, bai enpleguari eta bai sortutako Balio Erantsi Gordinari dagokionean.

Zehatz esanda, lortutako datuen arabera, 2002ko ekitaldiaren bukaeran, Gizarte Ekonomiaren pisu espezifikoa EAEn biztanleria landun eta okupatuaren %6,8koa zen (%6,5koa 2000. urtean) eta Balio Erantsi Gordin osoaren %5,8koa (%5,6koa 2000. urtean), finkatu egiten delarik horrela 1994az geroztik sumatzen den hazteko joera.

Hona hemen ondoren Gizarte Ekonomiaren magnitude nagusien konparazio-taula:

TAULA OROKORRA

2002

2000

ESTABLEZIMENDU-KOPURUA	3.133	2.618
ENPLEGUA	60.415	58.852
SALMENTA GARBIAK (MM €)	7.507,45	6.405,05
BALIO ERANTSI GORDINA	2.390,08	2.024,09
ESPORTAZIOAK	1.786,63	1.434,74
ESPORT. SALMENTEI BURUZ %	23,79	22,40
MOZKINAK (MM €)	364,33	450,64
INBERTSIOAK (MM €)	428,92	419,93
CASH-FLOW (MM €)	807,71	753,97

Ondoren, aldagai nagusiak zehaztuta agertzen dira forma juridikoaren arabera, baita enpleguaren lurralde-banaketa eta establezimenduena ere:

EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGU-BANAKETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA ETA FORMA JURIDIKOAREN ARABERA 2002AN

FORMA JURIDIKOA

GUZTIRA KOOP.E. S.A.L. S.L.L.

JARDUERA-SEKTOREA

Nekazaritza	151	111-----	40	
Industria	33.155	24.871	6.841	1.443
Eraikuntza	2.468	1.246	631	591
Zerbitzuak	24.641	21.303	1.797	1.541
GUZTIRA	60.415	47.53	9.270	3.614

EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGU BANAKETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA ETA LURRALDE HISTORIKOKA (2002)

LURRALDE HISTORIKOA

GUZTIRA ARABA GIPUZKOA BIZKAIA

JARDUERA-SEKTOREA

Nekazaritza	151	40	61	50
Industria	33.155	2.538	20.562	10.055
Eraikuntza	2.468	426	854	1.188
Zerbitzuak	24.641	2.901	9.447	12.294
GUZTIRA	60.415	5.905	30.924	23.587

EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAREN ESTABLEZIMENDU BANAKETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA ETA FORMA JURIDIKOAREN ARABERA (2002)

FORMA JURIDIKOA

GUZTIRA KOOP.E. S.A.L. S.L.L.

JARDUERA-SEKTOREA

Nekazaritza	36	26	-----	10
Industria	886	398	314	174
Eraikuntza	334	129	68	137
Zerbitzua	1.877	1.261	172	444
GUZTIRA	3.133	1.813	555	765

LURRALDE HISTORIKOA

GUZTIRA ARABA GIPUZKOA BIZKAIA

JARDUERA-SEKTOREA

Nekazaritza	36	7	11	18
Industria	886	114	443	330
Eraikuntza	334	55	131	149
Zerbitzuak	1.877	273	663	941
GUZTIRA	3.133	448	1.247	1.438

IRUZKIN OROKORRAK

- 1) Kooperatibek bere hegemonia mantentzen dute Gizarte Ekonomiako enpresek oro har sortutako enpleguan duten partaidetzan, nahiz eta 2,9 puntu gutxitu diren establezimendukopuruari dagokionean 2000. urtean zegoen egoerari buruz betiere.
- 2) Aurreko ekitaldietan sumatu zen hirugarren sektorerako joera mantendu ez ezik, are garrantzitsuago ere bihurtu da. Enplegu tertziarioaren pisu erlatiboa gehitu egin da %37,9tik 2000. urtean %40,7ra 2002. urtean.
- 3) Enplegu-hazkundera lurraldeen ikuspegitik aztertuta badirudi Bizkaiak gero eta pisu handiagoa duela, nahiz eta nabarmen nagusi izaten jarraitu Gipuzkoako enpleguak, Gizarte Ekonomiako enplegu globalaren erdia baino gehixeago baita.

KOOPERATIBEN ERREGISTROKO DATUAK

EAE-N ERATUTAKO KOOPERATIBAK 2003KO ABENDUAREN 31RA ARTE

MOTAK	EAE GUZTIRA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
NEKAZARITZAKOAK	89	40	25	24
ENPRESA-MULTZOAK	2			2
KONTSUMOA	29	2	14	13
KREDITUA	3		1	2
BIGARREN MAILA EDO MAILA HANDIAGOKOAK	41	7	8	26
IRAKASKUNTZA	88	9	43	36
ERKIDEGOAN USTIATZEA	3		2	1
MISTOAK	7		1	6
ENPRESA-ZERBITZUAK	10		2	8
PROFESIONALEN ZERB.	56	7	25	24
LAN ELKARTUA	924	132	409	383
ETXEBIZITZA	155	56	44	55
GUZTIRA	1.407	253	574	580

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ERATUTAKO KOOPERATIBAK

MOTA CLASES	ARABA ALAVA			GIPUZKOA GIPUZKOA			BIZKAIA BIZKAIA			E.A.E. C.A.P.V.		
	KOOP.	BAZKIDE	KAPITALA	KOOP.	BAZKIDE	KAPITALA	KOOP.	BAZKIDE	KAPITALA	KOOP.	BAZKIDE	KAPITALA
	COOP.	SOCIOS	CAPITAL	COOP.	SOCIOS	CAPITAL	COOP.	SOCIOS	CAPITAL	COOP.	SOCIOS	CAPITAL
LAN ELKARTUA	5	22	58.846	24	123	542.620	21	114	910.294	50	259	1.511.760
KONTSUMOA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
IRAKASKUNTZA	0	0	0	2	636	129.427	2	8	6.305	4	644	135.732
NEKAZARITZA	1	5	46.800	0	0	0	1	3	3.000	2	8	49.800
ERKIDEGOAN USTIATZEA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
ETXEBIZITZAK	9	45	49.291	2	7	7.200	10	67	47.650	21	119	104141
KREDITUA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
ASEGURUAK	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
SANITARIOAK	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
PROFESIONAL- ZERBITZUAK	0	0	0	0	0	0	1	7	24.003	1	7	24.003
ENPRESEN ZERBITZUAK	0	0	0	1	3	60.101	1	4	30.050	2	7	90.151
ERAKUNDEEN ZERBITZUAK	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
GIZARTERATZEKO	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
BIGARREN MAILAKOAK	0	0	0	3	90	3.667.113	1	3	60.000	4	12	3.727.113
TALDERATUAK	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
KORPORAZIOAK	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
MISTOAK	0	0	0	2	10	915.760	0	0	0	2	10	915.760
GUZTIRA	15	72	154.937	34	788	5.322.221	37	206	1.081.302	86	1.066	6.558.460